

**ERLATIBOAZ eta
UTZI eta DEBEKATU ADITZEN
ERREGIMENAZ**

Gasteizen, 2001eko martxoaren 12an.

Jesus Mari Makatzaga
Gramatika batzordeko idazkaria

San Torcuato jauna, agur:

Zuregandik jaso ditugun galdera batzuen erantzuna ematera natorkizu lerro hauen bidez.

1. Lehendabizikoan galdetzen diguzu ea zuzena den *Ni bizi naizen lagunarekin joan naiz mendira* perpausa ala nahitaez esan behar den *Nirekin bizi den lagunarekin joan naiz mendira*.

Lehendabizikoa zuzena da eta ez da nahitaez bigarrena erabili behar. Dena den, era honetako zalantzak argitzeko egokiena *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko perpausak 1)* gramatikan esaten duguna irakurtzea litzateke (ikus 184-197 orrialdeak, bereziki 189 orrialdea, 2.2.7.1. *Kasu paralelismoa* izeneko azpiatala).

2. Esaldi hauetatik zein da zuzena eta zergatik:

- a) *Ez didate utzi hor sartzea*: EZ
- b) *Ez naute utzi hor sartzea*: EZ
- c) *Ez didate utzi hor sartzen*: BAI (*utzi* aditzak erregimen hori agintzen duelako: NORK-NORI aditza da erabilera horretan eta *zertan utzi* eskatzen du, *-tzen* alegia).
- d) *Ez naute utzi hor sartzen*: EZ

Beste perpaus hau ere onartzekoa da:

- e) *Ez naute utzi hor sartzera*: BAI (iparraldeko tradizioan).

3. Gauza berbera hauekin:

- a) *Debekatu egin didate hor sartzea*: BAI (*debekatu* aditzak erregimen hori eskatzen duelako).
- b) *Debekatu egin didate hor sartzen*: EZ
- c) *Debekatu egin naute hor sartzea*: EZ
- d) *Debekatu egin naute hor sartzen*: EZ

Beste hau ere egokia izan liteke:

e) *Debekatu egin naute hor sartzetik* (iparraldeko tradizioan).

Dena den, *debekatu* aditza *Orotariko Euskal Hiztegian* argitaratua denez, han aztertu ditzakezu literatura tradizioetik bildutako adibideak. Ikus VI aleko 52. eta 53. orrialdeetan.

Besterik gabe, eta zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.